

EGIAK

LEEN ETA ORAI

Leendik orairat, gure Eskual-erri maitean, nola gauzak eta jendeak itzulikatu diren, nola diren kasik bertze batzu bilakatu!

Leen, gutiz geienak oinez zabiltzan, aitoren semeak zaldiz;

Orai, nor-nai karrosan eta burdin-bidez.

Leen, bazter errietan, zenbat etcheko-jaun ez zen iltzen, iria ikusgabe!

Orai, langileak berak Pariseraino badoatzi.

Leen, iruten ari ziren emaztekiak eta nechkatchak;

Orai, etchetiar alabak berak *brodatzen*.

Leen, bakotcha bere einaren arabera jauntzia zen;

Orai, etcheko-andereak eta seiak bardin-bardina.

Leen, laborari etchetan, aragirik ez zen eliza-pestaz kanpo ikus-ten;

Orai, non-nai, asteleegun gorriarekin, aragia eltzean.

Leen, non ziren agorienta eta *edari churiak*?

Orai, non ez dire?

Leen, esnearekin egiten zen goizeko aratunata;

Orai, kafeño ori bear... bertzeto arrekin.

Leen, pipatzailerik ez zen an emenka baizik;

Orai, denak pipa eta *chigarreta*.

Leen, bi ostatu ziren gure errian;

Orai, zortzi.

Bainan ere:

Leen, etchegeienetan, galtzerdi chaar batean, bazen zenbeit urre gorri;

Eta orai, etche ek, zorrez itoak, chutik doi doia dagotzi; frango erreka – rat gaki!...

Leen, mutil gazteak urean ariko ziren pilotan;

Orai, ainitz errebote soro ganak dire.

Leen, aurrentzat zen *pleka*; pilotari egiazkoak ari ziren *errebotean* eta *luzean*;

Orai, guziak *pleka* orri emanak dire.

Leen, nor-naik bazakizkan zenbeit koplak, eder edo bitchi;

Orai, niondik ez da aditzen baizik *tra-la-la* edo *ti-lu-li*.

Leen, erraiten zen: *Egun on* eta *gau on*;

Orai, *bonjour* eta *bonsoir*.

Leen, frantsesa jakinikan ere, gogotik mintzatzen eskuaraz;

Orai, frantsesa nolazpeit murruskatzen asi orduko, eskuaraz mintzatzeke aalke.

Leen, eliza-pestetan, aski zen chirola bat tuntunarekin;

Orai, iritik bear dituzte ez dakit zenbat turruta.

Leen, jautzi motchetan, *muchikoetan*, ari ziren lerdan eta zalu;

Orai, alako *kaskoian dantza* ergel batzuetan.

Leen ilun nabarrean, plazak usten ziren;

Orai, sobra maiz, gauaz or dabiltza naas-maas.

Bai, bai.

Leengo eskualdunek maiteago zuten Eskual-erria!

Bai, bai.

Leen orai baino lañokiago eta gochokiago bizi zen Eskual-errian!...

Leen, goizik ezkontzen ziren gazteak;

Orai, berant, berantegi.

Leen, etcheko zaarrak maitatuak ziren eta ooratuak;

Orai, ardura traba dire eta gaizki ekarriak.

Leen, bear zenean, burasoek aurrak larderiatzen zituzten;

Orai, beti lausengatzen.

Leen, aurren artean asko gauza ez zen aipatzen;

Orai, acholarik gabe zer-nai erasten.

Leen, aurreri ez zaioten sos guti baizik emaiten;

Orai, sakelak diruz beteak dituzte.

Leen, jende larrien artean, aurrak ichilik zagotzin;

Orai, bertzeak baino ausarkiago mintzo dire.

Leen, gaztek zaarrak lorietan entzuten zituzten;

Orai, zaarren erranez burlatzen eta nardatzen dire.

Leen, igandeak otoitzeko egunak ziren;
 Orai, eta gero-ta-geiago jostetako egunak.
 Leen, noiz egiten zen igandekari partida andirik?
 Orai, guziz udan, noiz ez da egiten?
 Leen, meza nausiari zen aalaz jarraitzen;
 Orai, goiz mezari; laburrenari.
 Leen, gizonek eliza kantu errepikaz airatzen zuten;
 Orai, ez da kasik zenbeit chachar baizik ari; gazteak ichil.
Leen, eskualdun eta girstino, biak bat ziren.
 Eta orai!... Orai!...

—Orai, leen bezala, maita detzagun sor-tokia, lana, bizitze arrunta;

Orai, leen bezala, atchikiak izan gaiten Eskual-erriko mintzaiari, josteteri;

Orai, leen bezala, dugun guziz igandea ongi begira.

Eta orai ere, leen bezala, erranen da: *Eskualdun eta girstino, biak bat dire;*

Eta orai ere, leen bezala, etchetan izanen da frango urre gorri;

Eta orai ere, eta agian beti, leen bezala errepikatzen aalko da goraki:

«Errialde guzietan toki onak badira,
 Bainan biotzak dio: Zoaz Eskual-errira».